

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko azaroaren 20tik azaroaren 24rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: PMIak



### Datuaren analisisa

Frantzia, Alemania eta Euroguneko PMIen azaroko atariko datuak argitaratu ziren. Frantzian, zerbitzuen PMIak zein manufaktuarenak aurreikuspen guztiak hautsi zituzten, lehenengoa 60,2raino igo baitzen, bigarrena 57,5era, eta indize konposatua 60,1eraino. Alemanian, zerbitzuen PMIa 54,9raino hobetu zen, espero zena baino gutxiago bada ere; eta manufaktuarena 62,5eraino igo zen, aurreikuspenak gaindituz. Horrenbestez, datu konposatua 57,6raino hobetu zen, aurreikusitako 56,7tik gora. Azkenik, Euroguneko metatuan bi osagaiak hobera egin zuten, zerbitzuena 56,2raino eta manufaktuarena 60raino, aurreikusitakoaren gainetik. Eta datu konposatua 57,5eraino igo zen, aurreikusitako 56aren gainetik. Denak ala denak maila altuetan daude eta enpresen aurreikuspen onen erakusgarri dira.

### Adierazlearen azalpena

Manufaktuaren/Zerbitzuen PMIa hilean behin erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktuaren sektorearen testuinguruari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek izango duten bilakaera aurreikusteko balio digu, esate baterako, BPGd-arena kasu honetan. Datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hedatzen ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, aldiz, ekonomia uzkuratzen ari dela.


# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: IFO

Septiembre 2015

IFO



### Datuaren analisia

Alemaniako konfiantza-indizea maximo historikoetara iritsi da azaroan, urrian lortu zuen errekorretik, 116,82tik, 117,5era igo baita. Hobekuntza horren oinarri nagusia, funtsean, aukeren osagaia izan da, 111raino igo dena, esperotako 108,8ko datua nabarmen gaindituz. Ekonomiaren gaur egungo egoeraren gaineko pertzepzioa da jaitsi den bakarra, 124,4raino, 125 puntutan kokatzen zuten aurreikuspenen azpitik.


### Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jardura ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ONDASUN IRAUNKORREN AGINDUAK



### Datuaren analisia

Ondasun iraunkorren aginduen datua argitaratu zen, eta ustekabean,  $-1.2\%$  egin zuten atzera, espero zen igoeraren oso azpitik ( $+0.3\%$ ). Atzerakada horrek ez zuen kezka berezirik sortu, funtsean, aireontzi ez komertzialen sailaren beherakadak eragindakoa izan baitzen. Behin sail hori kenduta, espero zen moduko igoera ikus daiteke.

### Adierazlearen azalpena

Ondasun Iraunkorren Eskaeren Indizeak fabrikatzaile nazionaleri berehala eta etorkizunean entregatzeko egiten zaizkien eskari berriak aztertzen ditu. Hiru urtetik gorako bitzta daukaten produktu industrialak besterik ez dira aintzat hartzen. Ekoizpen industrialaren adierazle aurreratu bat da. Indize hau hazten denean, eskaria indartzen ari dela esan nahi du. Produktu iraunkor hauetarako inbertsio handiak egin behar direnez, herrialdearen egoera ekonomikoak eragina dauka emaitzetan.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/27	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	624k
11/27	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	24.0
11/28	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	101
11/28	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.7
11/28	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	123.5
11/28	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	14
11/29	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 2,2
11/29	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1,7
11/29	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	114.5
11/29	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	0.1
11/29	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
11/29	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1,7
11/29	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 3,2
11/29	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
11/30	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 7,2
11/30	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-11
11/30	Txina	Fabrikazioaren PMIa	51.5
11/30	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	--
11/30	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1,3
11/30	Espainia	Urte arteko BPGd	% 3,1
11/30	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 8,9
11/30	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	% 1,6
11/30	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1,0
11/30	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
11/30	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	62.0
12/01	Japonia	Langabezia	% 2,8
12/01	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0,2
12/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
12/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	51.0
12/01	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	56.1
12/01	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	57.5
12/01	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	62.5
12/01	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	60.0
12/01	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	--
12/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	58.3

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Aste honetan, oro har, gorakadak eman dira Atlantikoaren bi aldeetako merkatu nagusietan. Europan, koalizioko gobernua osatzeko Alemanian bizi dituzten zailtasunak izan dira albiste politiko nagusia. Horren ondorioz, gerta liteke hauteskundeetara berriro deitu behar izatea. Dena dela, azkenean, albiste honek ez zuen eragin handiegirik izan merkatuetan. Autoen mugimendu sektorialak eragin handiagoa izan zuen. Datozen urteetan auto elektrikoen merkatuko buru izateko iragarri zuen plan estrategikoaren ondoren Volkswagenek izan zuen bilakaera onak bultzatuta egin zuen aurrera sektore horrek. Oinarrizko Baliabideen sektorearen portaera ere ona izan zen, Arcelormittalen bilakaera ona oinarri hartuta. AEBetan, negoziozibolumena urria izan da aste honetan, baina oso positiboa indizeentzat, eta osteguneko Esker Emate egunaren jaiegunak eta ostiraleko jaiegun erdiak baldintzatu dute. Fed-en azken akten argitalpena izan da albiste nagusia han. Bertan, tasen igoera hasieran espero zena baino motelagoa izango dela esaten da. Japonian eta herrialde gorakorretan oro har, astea positiboa izan zen ere bai.

## ERRENTA FINKOIA:

Zor publikoaren merkatuan, ez zen aldaketa nabarmenik gertatu Europako core zorraren eta Ipar Amerikako zorraren errentagarritasunetan. Mugimendurik handienak zor periferikoan gertatu ziren: erosketak izan ziren nagusi bertan, eta errentagarritasunek atzera egin zuten. Gauzka horrela, 10 urterako tasa espainiarrak -7op egin zuen atzera; alemaniarra, aldiz, bere horretan mantendu zen, eta, beraz, arrisku-prima 113 op-etaraino estutu zen. Bestalde, kreditua pixka bat hobetu zen eta bere diferentzialak estutu zituen.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisetan, astearen hasieran, euroa nabarmen ahuldu zen Alemaniako albiste politikoak ezagutu ondoren, baina horren ostean, behin Fed-en aktak argitaratuta, dolarrak galdu zuen balioa; horrenbestez, astearen amaieran, dolarrak balioa galdu zuen euroaren aldean, eta 1,1933\$/€ mailan kokatu zen.

Lehengaietan, petrolio gordinaren prezioak gora egin zuen, 63,48\$/upela mailaraino. AEBetako inbentarioen zenbaki onek prezioa gora bultzatu zuten, bai eta Kanada eta AEBak lotzen dituen olioduktu garrantzitsu bat zenbait astez itxita egon daitekeela esaten zuen albisteak ere. Urreak balioa galdu zuen, 1.288,8\$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZ.	% Aldaketa Astean	Ald. % 2017
MSCI WORLD (Eur)	176,18	-0,02	3,92
IBEX 35	10.053,50	0,43	7,50
DJ EURO-STOXX 50	3.581,23	0,95	8,83
DJ STOXX 50	3.170,49	1,05	5,31
FTSE	7.409,64	0,39	3,74
S&P 500	2.602,42	0,91	16,24
Dow Jones	23.557,99	0,86	19,20
NASDAQ	6.889,16	1,57	27,98
NIKKEI 225	22.550,85	0,69	17,98
MSCI EMERGENTES (Eur)	379,78	0,25	18,28
MEXBOL	47.941,88	0,18	5,04
BOVESPA	74.157,38	0,98	23,13
SHANGHAI	3.512,48	-0,86	8,09
Rusia Rts Mosku	1.166,09	2,97	1,19

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,70	0,02	0,07
ESPAINIA 2 URTE	-0,34	-0,01	-0,06
AEB 2 URTE	1,74	0,02	0,56
ALEMANIA 10 URTE	0,36	0,00	0,15
ESPAINIA 10 URTE	1,49	-0,07	0,10
AEB 10 URTE	2,34	0,00	-0,10
ALEMANIA 30 URTE	1,20	-0,05	0,25
ESPAINIA 30 URTE	2,74	-0,11	0,12
AEB 30 URTE	2,76	-0,01	-0,30
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	49,11	-2,51	-22,93
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	236,58	-8,38	-52,12

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2017
Dolarra / Euroa	1,19	1,20	13,43
Yena / Euroa	133,03	0,67	8,15
Libera / Euroa	0,90	0,33	4,89

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Petrolio (Brendt)	63,48	1,86	14,56
Urrea	1.288,80	-0,42	11,85

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.